

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 840/2024 Erabakia, abenduaren 27koa. Arabako Kirol Federazioentzako 2025erako laguntzen deialdi publikoa onartzea

Euskal Autonomia Erkidegoko Kirolaren Legeak (2/2023 Legea, martxoaren 30ekoa), 4.h. artikuluan, artikulua bidez, lurralde historikoetako foru organoei esleitzen zaizkie onespren, laguntza, finantzazio, esku hartze eta kontrolaren gaineko eskumenak, kirol federazioek beren funtzio publikoak betetzen dituztela bermatzearen, beren jarduerak pribatuaren kalterik gabe.

16/2006 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Federazioei buruzkoa) 6. artikuluan dio ezen Administrazioek kirol federazioei beren jarduerak egiteko behar dituzten laguntza teknikoak eta babes ekonomikoak emango dizkietela, beren aurrekontuetan ezarrita dauden diru-horniduren arabera.

Hori guztia dela eta, akordio honen bidez formula bat prestatu nahi da, Arabako kirol-federazioei, aurrekontu-mugen barruan, baliabide ekonomiko nahikoak eman ahal izateko, beren administrazio-funtzio publikoak bete ditzaten eta, oro har, Euskadiko Kirolaren martxoaren 30ko 2/2023 Legeak esleitzen dizkion eskumenak baliatuz Arabako Foru Aldundiaren agente laguntzaile gisa jardun dezaten.

Federazio bakoitzari egingo zaion urteko ekarpena urteko ekarpen finko bat izango da, ekarpen osagarri bat, San Prudentzio eguna ospatzen duten kirol-jarduerak antolatzeagatik egindako ekarpen bat eta Arabako kirol federazioetako eta Arabako kirol federazioen elkarteko soldatapeko langileek euskara ikastea sustatzeagatik egindako ekarpen bat.

Nahitaezko txostenak ikusita,

Horregatik, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, erabaki hau onetsi da

ERABAKIA

Lehena. Arabako kirol federazioentzako 2025rako laguntzen deialdi publikoa onartzea.

Bigarrena. Deialdi hau arautzen da Kultura eta Kirol Sailaren lehia-araubideko dirulaguntzak ematea arautzen duten oinarri orokorren arabera (50/2019 Foru Dekretua, azaroaren 12koa, Foru Gobernu Kontseiluarena, 2019ko azaroaren 20ko ALHAOn argitaratua, 134. zenbakia, martxoaren 2ko 7/2021 Foru Dekretuak aldatua), Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko urriaren 9ko 11/2016 Foru Arauan aurreikusitakoaren arabera, bai eta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen akordioan ezarritakoaren arabera ere.

Hirugarrena. Laguntza horien gehieneko zuzkidura 365.000,00 eurokoa izango da. Gastu hori babesten duen aurrekontu-partida 70201. G/341700/48100710, "Arabako kirol Federazioentzako dirulaguntzak" izenekoak, Arabako Foru Aldundiaren 2025eko ekitaldiko aurrekontu-proiektuarena.

Laugarrena. Dirulaguntzak emateko, ezinbestekoa izango da horiek finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa egotea.

Bostgarrena. Organo eskudunak dagokion ebazpena emango du, deialdia ALHAOn argitaratu eta gehienez ere sei hilabeteko epean. Gehienezko epea igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, interesdunek ulertu ahal izango dute eskabidea ezetsi egin dela.

Seigarrena. Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie erakunde eskatzaileei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Zazpigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da eta ondorioak argitaratu eta hurrengo egunean izango ditu.

Zortzigarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko Foru Gobernu Kontseiluari, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakioko bi hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzietarako kasuan kasuko epaitegietan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz. 2024ko abenduaren 27a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kultura eta Kirol saileko foru diputatua

ANA MARÍA. DEL VAL SANCHO

Kirol zuzendaria

JUAN JOSÉ ROJO BAZÁN

ARABAKO KIROL FEDERAZIOEI ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA, 2025 URTEA

1. artikulua. Deialdiaren xedea eta dirulaguntza emateko prozedura

1. Deialdiaren xedea da baliabide ekonomikoak ematea kirol federazioei:

a) Administrazio arloko eginkizun publikoak betetzeko eta, oro har, Euskadiko Kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legeak esleitzen dizkien eskumenak egikaritzean Arabako Foru Aldundiaren laguntzaile dihardutenerako.

b) San Prudentzio txapelketak antolatzea eta egitea.

c) Beren erakundeetako soldatapeko langileek euskara ikas dezaten sustatzea.

2. Laguntzak norgehiagoka bidez emango dira.

2. artikulua. Dirulaguntzen aurrekontu egozpena, zenbatekoa eta muga

1. Dirulaguntzen guztizko zenbatekoa ezin daiteke 365.000,00 euro baino handiagoa izan. Zenbateko hori Arabako Foru Aldundiaren 2025eko ekitaldiko aurrekontu-proiektuaren gastu aurrekontuko "Arabako Kirol Federazioentzako dirulaguntzak" izeneko 70201G/341700/48100710 partidari egotziko zaio. Diru-laguntzak emateko, ezinbestekoa izango da horiek finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa egotea.

2. Federazioek dirulaguntza horietako bat edo batzuk eskuratu ahal izango dituzte, adierazitako gehieneko zenbatekoen arabera:

a) Gutxienez 3.000 euroko ekarpena, eskaera behar bezala aurkezten duten kirol federazio guztiei eta deialdi honetan aurreikusitako baldintzak betetzen badituzte.

b) Ekarpene osagarri aldakorra, 9. artikuluan ezarritako baremoen arabera kalkulatua. Laguntza zati honentzat aurreko 1. paragrafoan ezarritako guztizko aurrekontu-mugaren eta artikuluko honetako a), c) eta d) idatz-zatietan aurreikusitako laguntza-lerroetan emandako guztizko laguntzen baturaren arteko aldea bideratuko da.

c) 750,00 euro antolatzen duten sanprudentzioetako txapelketa bakoitzerako, 5 txapelketa gehienez kirol modalitate eta federazio bakoitzeko. Gehienez ere, 26.250,00 euroko ekarpena egingo da kontzeptu hori dela eta, kirol federazioek planifikatutako jarduera guztietarako.

d) Arabako kirol-federazioetako eta Arabako kirol federazioen elkarteko soldatapeko langileek euskara-ikastaroekin lotutako gastuetarako dirulaguntza bat, honako muga hauekin:

- 850,00 euro 2.000 lizentzia baino gutxiagoko kirol federazio bakoitzeko.
- 2.550,00 euro 2.000 lizentzia edo gehiagoko kirol federazio bakoitzeko.
- 850,00 euro kirol federazioen elkartea.

Gehienez 6.000,00 euro erabiliko dira diru-laguntza lerro honetarako.

3. artikulua. Diruz lagunduko diren gastuak

Beraz, honako hauek joko dira diruz laguntzeko moduko gastutzat:

- a) Administrazio-izaerako funtzio publikoak betetzea.
- b) Sanprudentzioetako txapelketak antolatzeko gastuak.

Diruz lagundu ahal izango dira, halaber, Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko enklabean San Prudentzio edo Estibalizko Andra Mariaren jaiaren inguruan egiten diren kirol jarduerak, baldin eta dagokion kirol federazioaren egutegi ofizialaren barruan badaude. Jarduera horiek nahitaez egin behar dira 2025eko apirilaren 11tik maitzaren 4ra bitartean, biak barne. Jardueraren izenak zalantzarik gabe aipatuko du omendu nahi duen patroia.

c) Diruz lagundu ahal izango da deialdi honen 3. artikuluan zerrendatutako erakunde onuradunetan kontratatuta dauden langileek 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 21era HABEK homologatutako zentro batean egindako euskara ikastaroen matrikulek eragindako gastua. Diruz laguntzeko gastutzat matrikula bakarria onartuko da erakunde onuradun bakoitzeko; hala ere, 2.000 lizentzia edo gehiago dituzten erakundeen kasuan gehienez hiru matrikula onartuko dira erakundeko. 100 ordutik beherako ikastaroak ez dira diruz lagunduko.

4. artikulua. Erakunde onuradunak

1. Onuradun izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistroan behar bezala inskribatuta dauden eta 2024. urtean jarduera federatua izan duten Arabako kirol federazioak.

Gainera, euskara sustatzeko dirulaguntzen lerroan, egoitza soziala Araban duten kirol-federazioen elkarreak ere onuradun izan daitezke.

2. Ez dira onuradun izango ez Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak ematea arautzen duten oinarri orokorrak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren hirugarren oinarrian jasotzen diren baztertze egoeretan dauden erakundeak, Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak emateko oinarri orokorrak onartu zituena, indarrean dagoen moduan.

3. Era berean, ezingo dira laguntza hauen onuradun izan Kultura eta Kirol Sailaren aurrekontuan dirulaguntza izendunak dituzten kirol-federazioak, baldin eta horien helburua bat badator dirulaguntza honen xedearekin.

5. artikulua. Arabako kirol federazio onuradunen betebeharrak

1. Hona hemen Arabako kirol federazio onuradunen betebeharrak:

a) Baremaziorako eskatutako agiriak eta justifikatzeko nahitaezkoak direnak aurkeztea deialdi honetan jasotako epe eta moduetan.

b) Deialdi bakoitzaren arabera, Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan aritzea, dirulaguntzen deialdiak ebazteko behar diren ziurtagiriak eta datuak batzen.

c) 2011. urteaz geroztik (urte hori barne) jaiotako eskolako kirolarientzat lizentzia federatuak ez izapidetzeko konpromisoa, Arabako Foru Aldundiaren Kirol Zuzendaritzaren baimen espresurik gabe, eskola kirola arautzen duten araudiak onesten dituen 50/2021 Foru Aginduaren VII. tituluaren bigarren ataleko 68. artikulua leheneko puntuan adierazitakoaren arabera.

d) 2024-2025 kanpaina eskola kirolarientzat kirol lehiaketarik ez antolatzeko konpromisoa, Arabako Foru Aldundiaren Kirol Zuzendaritzaren baimen espresurik gabe.

e) Ohiko jarduera, jarduera administratiboa eta, oro har, federazioaren, eskolako eta aisialdiko jarduera garatzeko beharrezkoak diren guztiak egitea.

f) Egindako jardueri buruzko datuak eta agiriak ematea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Epaitegiak edo beste erakunde eskudun batzuek eskatutako informazioa ere eman beharko dute, eta dagozkien auditoretzak egitea onartu.

g) Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan aritzea klub, kirol talde eta, oro har, kirolariei ezagutarazteko Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Sailak onesten dituen dirulaguntzen deialdiak.

h) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea. Kirol Zuzendaritzak ofizioz kontsultatuko du egoera hori erakunde eskudunetan, baldin eta erakunde interesduna horren aurka ez badago.

i) Beren jardueretan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritako printzipio orokorrak betetzea, bai eta aplikatu beharreko araudian berdintasunari buruz jasotako aginduak ere, bereziki honako alderdi hauei dagokienez: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea beren lurralde eremuko kirol modalitatea praktikatzeko; komunikazioetan, argitalpenetan, programetan, ikastaroetan eta abarretan hizkuntza berdintasunez erabiliko dela bermatzea; emakumeak diskriminatzen dituzten irudirik ez erabiltzea; eta berdintasuna, dibertsitatea, rol aniztasuna eta erantzukidetasuna oinarri dituen irudia sustatzea. Halaber, hizkuntza ez-sexista erabiltzea egiten diren agiri guztietan, aurkezpenetan, ahozko komunikazioan eta komunikazio sinbolikoan.

j) Dirulaguntza ematen duen erakundeari jakinaraztea Estatuko edo nazioarteko beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako dirulaguntzak edo laguntzak eman dizkiola, bai eta dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan izandako aldaketak ere.

k) Arabako Foru Aldundiaren finantzaketa berariaz adieraztea diruz lagundutako jarduera guztietan, baldin eta zabaldu, hedatu edo argitaratu behar badira.

l) Hizkuntza ofizialen erabilerari dagokionez, honako jarraibide hauek betetzea:

— Liburuxkek, kartekek eta herritarren artean jarduera zabaltzeko bestelako euskarriek bi hizkuntza ofizialetan argitaratu beharko dute material hori.

— Aldundiak diruz lagundutako jarduera edo ekitaldietan euskararen erabilera bermatu beharko da, aurkezpenetan eta agurretan, gutxienez; lehenik euskaraz egingo da, eta ondoren gaztelaniaz.

– Diruz lagundutako jarduera edo ekitaldia haurrei edo gazteei zuzenduta badago, pertsona onuradunek haiekin euskaraz zein gaztelaniaz harremanetan jartzeko aukera bermatuko diete.

m) Diruz lagundutako jarduerak egiten dituzten eta adingabeekin ohiko harremanak edukitzea eskatzen duten langile kontratatuek eta/edo boluntarioek Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketaren Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa dutela egiaztatzea. Era berean, berehala aplikatzea Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Era Integralean Babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren V. tituluko II. kapituluaren xedatutakoa, sortutako aurrekariak baldin badaude Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketaren Erregistro Zentralean.

2. Betebeharrak ez betetzeak jasotako laguntza itzultzeko eskatzea ekarriko du.

6. artikulua. Eskaerak aurkeztea

1. Kirol federazioek eskaera bana baino ezin izango dute aurkeztu.

2. Eskaerak egoitza elektronikoan esteka honetan eskuragarri dagoen berariazko izapidearen bidez soilik formalizatuko dira.

3. Eskaerak osorik bete ezean edo deialdi honetan eskatutako agiriren bat falta izanez gero, interesdunari eskatuko zaio falta diren datuak eta nahitaezko agiriak aurkezteko hamar egun baliouduneko epean. Era berean, jakinaraziko zaio, horrela egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko dela, eta, beraz, eskaera artxibatu egingo dela, kasuan kasuko ebazpena eman ondoren.

7. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak

Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

1. Federazioaren informazioa (hala badagokio):

a) Soldatapeko langileak egotea, edo ez, gutxienez 6 hilabeteko kontratuarekin, 2024an. Soldatapeko langileak daudela egiaztatzeko, federazioek hauexek entregatu beharko dituzte:

– Lan kontratuaren kopia.

– 2024ko PFEZaren ekarpenen 190 eredia (pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena. Lanaren etekinak, jarduera ekonomikoak, sariak eta errenta-egozpen jakin batzuk, erakunde eskatzailea Kultura eta Kirol Sailak ofizioz egiaztatzearen aurka badago).

b) Berdintasun plana.

c) Euskera plana edo euskararen presentziari, erabileri eta kudeaketari lotutako indarreko ziurtagiri bat (Bikain, Harrobi, Bai Euskarari).

d) Ekitete-Gizarteratze plana.

2. Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen dokumentazioa (Erakunde eskatzaileak Kultura eta Kirol Sailak ofizioz egiaztatzearen aurka egiten badu bakarrik).

8. artikulua. Aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko hamabost egun baliouduneko epea egongo da erabaki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

9. artikulua. Baremoak eta kalkulua egiteko modua

1. Ekarpene osagarriaren puntuazioaren arabeko banaketa-sistema bat aplikatuko da, honako arau hauek bata bestearen atzetik aplikatuz:

A. Erakunde eskatzaile bakoitzari puntu kopuru bat emango zaio, honako arau hauen aplikazioaren arabera.

1. Federazioaren egitura eta jardueren antolaketagatik:

| | PUNTUAK |
|---|---------|
| Federazioan pertsona bat kontratatuta, gutxienez 6 hilabetez 2024an, lanaldi osoan | 5 |
| Federazioan pertsona bat kontratatuta, gutxienez 6 hilabetez 2024an, lanaldi erdian | 3 |
| Federazioan pertsona bat kontratatuta, gutxienez 6 hilabetez 2024an, lanaldiaren erdia baino ehuneko txikiagoan | 1 |
| Federazioan bi pertsona kontratatuta, bietako bakoitza gutxienez 6 hilabetez 2024an, lanaldi osoan | 10 |
| Federazioan bi pertsona kontratatuta, bietako bakoitza gutxienez 6 hilabetez 2024an, lanaldi erdian | 6 |
| Federazioan bi pertsona kontratatuta, bietako bakoitza gutxienez 6 hilabetez 2024an, lanaldiaren erdia baino ehuneko txikiagoan | 2 |
| Federazioan hiru pertsona de gehiago kontratatuta, hiruretako bakoitza gutxienez 6 hilabetez 2024an, lanaldi osoan | 15 |
| Federazioan hiru pertsona de gehiago kontratatuta, hiruretako bakoitza gutxienez 6 hilabetez 2024an, lanaldi erdian | 9 |
| Federazioan hiru pertsona de gehiago kontratatuta, hiruretako bakoitza gutxienez 6 hilabetez 2024an, lanaldiaren erdia baino ehuneko txikiagoan | 3 |
| Eskola kirola garatzeko hitzarmena izatea | 10 |
| Federazioak egituraren funtzionamendua hobetzeko kudeaketa aurreratuko sistemen Euskalit – Bikaintasunerako Euskal Fundazioaren ikastaroan (Kudeaketa aurreratuko diploma) parte hartu eta abian jarri izana; horien ziurtagiriak indarrean egon behar dira eskaera aurkezten den unean | 18 |
| 4 kide edo gehiagoko zuzendaritza batzordeak, zeinetan sexu bakoitzak gutxienez ehuneko 40ko ordezkaritza baitu; gainerakoetan, bi sexuen partaidetza | 5 |
| Erakundeak berdintasun-plan bat izatea eta ezartzen ari izatea | 10 |
| Erakundeak euskara-plan bat izatea eta implementatzen ari izatea edo indarrean dagoen ziurtagiri bat izatea, euskararen presentziari, erabilerari eta kudeaketari lotutako indarreko ziurtagiri bat (Bikain, Harrobi, Bai Euskarari) | 10 |
| Erakundeak ekitete-gizarteratze plan bat izatea eta ezartzen ari izatea | 10 |

2. Kirol federatua:

a) 2024ko abenduaren 31n emanda dauden federazio lizentzien kopuruagatik:

| FEDERAZIO LIZENTZIEN KOPURUA | PUNTUAK |
|----------------------------------|---------|
| 100 lizentzia arte | 2 |
| 101 eta 200 lizentzia artean | 4 |
| 201 eta 300 lizentzia artean | 6 |
| 301 eta 400 lizentzia artean | 8 |
| 401 eta 500 lizentzia artean | 10 |
| 501 eta 600 lizentzia artean | 12 |
| 601 eta 700 lizentzia artean | 14 |
| 701 eta 800 lizentzia artean | 16 |
| 801 eta 900 lizentzia artean | 18 |
| 901 eta 1.000 lizentzia artean | 20 |
| 1.001 eta 1.100 lizentzia artean | 22 |
| 1.101 eta 1.200 lizentzia artean | 24 |
| 1.201 eta 1.300 lizentzia artean | 26 |
| 1.301 eta 1.400 lizentzia artean | 28 |
| 1.401 eta 1.500 lizentzia artean | 30 |
| 1.501 eta 1.600 lizentzia artean | 32 |
| 1.601 eta 1.700 lizentzia artean | 34 |
| 1.701 eta 1.800 lizentzia artean | 36 |
| 1.801 eta 1.900 lizentzia artean | 38 |
| 1.901 eta 2.000 lizentzia artean | 40 |
| 2.001 eta 2.100 lizentzia artean | 42 |
| 2.101 eta 2.200 lizentzia artean | 44 |
| 2.201 eta 2.300 lizentzia artean | 46 |
| 2.301 eta 2.400 lizentzia artean | 48 |
| 2.401 eta 2.500 lizentzia artean | 50 |
| 2.501 eta 2.600 lizentzia artean | 52 |
| 2.601 eta 2.700 lizentzia artean | 54 |
| 2.701 eta 2.800 lizentzia artean | 56 |
| 2.801 eta 2.900 lizentzia artean | 58 |
| 2.900 baino gehiago | 60 |

b) 2024an federazioari atxikitako eta fitxa federatuak dituzten kirol-kluben edo -elkarteen (ez taldeak) kopuruagatik:

| KLUB KOPURUA | PUNTUAK |
|-------------------------|---------|
| 1 eta 5 klub artean | 1 |
| 6 eta 10 klub artean | 2 |
| 11 eta 15 klub artean | 3 |
| 16 eta 20 klub artean | 4 |
| 21 eta 25 klub artean | 5 |
| 26 eta 30 klub artean | 6 |
| 31 eta 35 klub artean | 7 |
| 36 eta 40 klub artean | 8 |
| 41 eta 45 klub artean | 9 |
| 46 eta 50 klub artean | 10 |
| 51 eta 55 klub artean | 11 |
| 56 eta 60 klub artean | 12 |
| 61 eta 65 klub artean | 13 |
| 66 eta 70 klub artean | 14 |
| 71 eta 75 klub artean | 15 |
| 76 eta 80 klub artean | 16 |
| 81 eta 85 klub artean | 17 |
| 86 eta 90 klub artean | 18 |
| 91 eta 95 klub artean | 19 |
| 96 eta 100 klub artean | 20 |
| 101 eta 110 klub artean | 21 |
| 111 eta 120 klub artean | 22 |
| 121 eta 130 klub artean | 23 |
| 131 eta 140 klub artean | 24 |
| 140 klub baino gehiago | 25 |

c) 2024. urtean (urtarriletik abendura) garatutako probintzia mailako lehiaketa ofizial federatuen egutegietako lanaldi kopuruaren arabera:

- Gizonezkoen nahiz emakumezkoen kategoria federatu guztietako jardunaldiak batuko dira.
- Lehiaketa “ofizialak” bakarrik hartuko dira kontuan, hau da, “Arabako Txapeldun” titulua lortzeko helburu dutenak, modalitate, kategoria eta adin-tarte guztietan, eta Arabako Federazioak antolatu eta garatutakoak. Horrenbestez, kanpoan geratzen dira adiskidetasunezkoak. Era berean, kanpoan geratzen dira “Arabako Txapelketa” lortzeko lehiaketa ofizial guztiak, zati batean edo osorik talde batek antolatzen baditu, eta ez dagokion Arabako Federazioak.
- Kategoria bakoitzeko (kadetea, gaztea, seniorra, etab.) kirol-modalitate edo disziplina bakoitzeko probintzia-mailako egutegi bakoitzean lehiaketa egun bat hartuko da kontuan, gizonezkoena zein emakumezkoena. Kategoria berean talde bat baino gehiago badaude (A, B, C, etab), eta talde horien lanaldiak egun berekoak badira, egun bakoitzeko lanaldi bakarra esleituko da.

| EGUTEGIKO JARDUNALDI KOPURUA | PUNTUAK |
|------------------------------|---------|
| 1 eta 10 jardunaldi artean | 2 |
| 11 eta 20 jardunaldi artean | 4 |
| 21 eta 30 jardunaldi artean | 6 |
| 31 eta 40 jardunaldi artean | 8 |
| 41 eta 50 jardunaldi artean | 10 |
| 51 eta 60 jardunaldi artean | 12 |
| 61 eta 70 jardunaldi artean | 14 |
| 71 eta 80 jardunaldi artean | 16 |

| EGUTEGIKO JARDUNALDI KOPURUA | PUNTUAK |
|-------------------------------|---------|
| 81 eta 90 jardunaldi artean | 18 |
| 91 eta 100 jardunaldi artean | 20 |
| 101 eta 110 jardunaldi artean | 22 |
| 111 eta 120 jardunaldi artean | 24 |
| 121 eta 130 jardunaldi artean | 26 |
| 131 eta 140 jardunaldi artean | 28 |
| 141 eta 150 jardunaldi artean | 30 |
| 151 eta 200 jardunaldi artean | 35 |
| 201 eta 250 jardunaldi artean | 40 |
| 251 eta 300 jardunaldi artean | 45 |
| 301 eta 350 jardunaldi artean | 50 |
| 351 eta 400 jardunaldi artean | 55 |
| 401 eta 450 jardunaldi artean | 60 |
| 451 eta 500 jardunaldi artean | 70 |

3. Eskola kirolaren garapenean erakunde laguntzaile gisa jarduten duten Arabako kirol federazioak.

a) 2024-2025 eskola kiroleko kanpainan izena eman duten irabazteko xederik gabeko elkar-teen (ez taldeak) kopurua:

| ERAKUNDE KOPURUA | PUNTUAK |
|----------------------------|---------|
| 1 eta 5 erakunde artean | 1 |
| 6 eta 10 erakunde artean | 2 |
| 11 eta 15 erakunde artean | 3 |
| 16 eta 20 erakunde artean | 4 |
| 21 eta 25 erakunde artean | 5 |
| 26 eta 30 erakunde artean | 6 |
| 31 eta 35 erakunde artean | 7 |
| 36 eta 40 erakunde artean | 8 |
| 41 eta 50 erakunde artean | 9 |
| 51 eta 60 erakunde artean | 10 |
| 61 eta 70 erakunde artean | 11 |
| 71 eta 80 erakunde artean | 12 |
| 81 eta 90 erakunde artean | 13 |
| 91 eta 100 erakunde artean | 14 |
| 101 erakunde baino gehiago | 15 |

b) 2024-2025eko eskola kiroleko kanpainan eskola lehiaketa ofizialen egutegiko (benjaminak, kimuak, haurrak eta kadeteak) eta mendirako eskola irteeren egutegiko jardunaldi kopurua.

Puntuazioa emateko, jardunaldi bat hartuko da kontuan kirol-modalitate edo -diziplina bakoitzeko probintzia-egutegi bakoitzean, kategoria bakoitzeko (benjaminak, alebin, haurrak, kadeteak, etab.), gizonetzkoen zein emakumezkoen dagokienez. Kategoria berean egun bereko jardunaldiak dituzten talde bat baino gehiago (A, B, C, etab.) badaude, egun bakoitzeko jardunaldi bakarra aintzat hartuko da. Era berean, eskola-kategoria guztietako jardunaldiak batuko dira, bai gizonetzkoenak, bai emakumezkoenak.

| EGUTEGIKO JARDUNALDI KOPURUA | PUNTUAK |
|------------------------------|---------|
| 1 eta 10 jardunaldi artean | 1 |
| 11 eta 20 jardunaldi artean | 2 |
| 21 eta 30 jardunaldi artean | 3 |

| EGUTEGIKO JARDUNALDI KOPURUA | PUNTUAK |
|-------------------------------|---------|
| 31 eta 40 jardunaldi artean | 4 |
| 41 eta 50 jardunaldi artean | 5 |
| 51 eta 60 jardunaldi artean | 6 |
| 61 eta 70 jardunaldi artean | 7 |
| 71 eta 80 jardunaldi artean | 8 |
| 81 eta 90 jardunaldi artean | 9 |
| 91 eta 100 jardunaldi artean | 10 |
| 101 eta 110 jardunaldi artean | 11 |
| 111 eta 120 jardunaldi artean | 12 |
| 121 eta 130 jardunaldi artean | 13 |
| 131 eta 140 jardunaldi artean | 14 |
| 141 eta 150 jardunaldi artean | 15 |
| 151 eta 200 jardunaldi artean | 20 |
| 201 eta 250 jardunaldi artean | 25 |
| 251 eta 300 jardunaldi artean | 30 |
| 301 eta 350 jardunaldi artean | 35 |
| 351 eta 400 jardunaldi artean | 40 |
| 401 eta 450 jardunaldi artean | 45 |
| 450 ordunaldi baino gehiag | 50 |

c) Ekarpen osagarria kalkulatzeko, artikuluko honetako batuko da. 2.2 artikuluko b) apartatuan ezarritako emaitza federazio guztien artean lortutako puntu guztien artean zatituko da. Horrela, puntu balioa lortuko da.

d) Puntu balio hori federazio bakoitzak lortutako puntuekin biderkatuko da; horrela, federazio bakoitzari esleitu beharreko zenbatekoa lortuko da.

2. Hona hemen Sanprudentzioetako txapelketak antolatzeko laguntza kalkulatzeko erizpideak:

a) 3 b) artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta justifikatuta dauden jarduera guztiak diruz lagunduko dira.

b) Federazio bakoitzari dagokion zenbatekoa zehazteko, 750,00 euroekin biderkatuko da federazio bakoitzak antolatutako San Prudentzio jardueren kopurua, gehienez ere 5 jarduera modalitate eta kirol-federazio bakoitzeko.

c) San Prudentzio txapelketetarako eskatutako laguntza guztien batukariak 2. Artikuluan ezarritako gehienekoa gainditzen badu 2. c) gehieneko zenbateko hori, laguntza eskatu den San Prudentzio torneoen kopuruen artean zatituko da.

3. Euskara sustatzeko dirulaguntza kalkulatzeko, erizpide hauek erabiliko dira:

a) Kontzeptu horrengatik emandako dirulaguntzen zenbatekoa euskara-ikastaroetako matrikulen kostuaren ehuneko 80koa izango da, 2. 2. d)artikuluan ezarritako mugekin.

b) Ateratzen diren zenbatekoek 2.2.d) artikuluan ezarritako gehieneko zuzkidura ekonomikoa gainditzen badute, jaso beharreko kopuruak deialdiko baldintzak betetzen dituzten eskabide guztien artean banatuko dira.

10 artikulua. Ebazpena

1. Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zuzendaritza izango da prozeduraren instrukziorako organo eskuduna.

2. Eskaerak balioespen batzordeak aztertuko ditu. Balioespen batzordearen buru Kirol zuzendaria izango da, eta honako hauek izango dira batzordekideak: Kirol Zerbitzuaren burua eta zerbitzu horri atxikitako teknikari bi. Kultura eta Kiroleko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetzen duen pertsona izango da idazkaria, hitzarekin baina botorik gabe.

3. Aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera aztertu ondoren, balioespen batzordeak txostena egingo du, eta ebaluazioaren emaitza zehaztuko du han.

4. Ez da egongo entzunaldiko izapiderik, ebazpena emateko ez baitira aintzat hartuko erakunde eskatzaileek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino.

5. Organo eskudunak bidezko ebazpena emango du, balioespen batzordeak proposatuta, gehienez ere sei hilabeteko epean, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehienezko epea igarota esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

6. Esleipen ebazpenean zer erakunde eskatzailei eman zaion dirulaguntza zehaztu behar da, eta berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla. Ebazpenean adierazi beharko da dirulaguntza zenbatekoa den (2. artikuluan azaldutako kontzeptu bakoitzeko emandako zenbatekoa zehaztuko du), nola ordainduko den, zer dokumentazio aurkeztu behar den eta zein baldintzarekin ematen den dirulaguntza.

7. Dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie erakundeei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 41 eta hurrengo artikuluetan aurreikusten dituen moduetan.

11. artikulua. Ordainketa eta justifikazioa

1. Laguntza finkoa deialdi hau emateko ebazpena onartu ondoren ordainduko da.

2. Laguntza osagarria justifikatu beharreko aurrerakin gisa ordainduko da, deialdi hau emateko ebazpena onartu ondoren. Justifikatzeko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira 2025eko azaroaren 7an amaituko den epean (egun hori barne):

a) 2025ean egindako urteko kontuak eta aurrekontua onartzeko ohiko batzar nagusiaren akta.

b) 2024. urteari dagokion kontabilitatea, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroak izapidetua.

c) 2025. urterako edo 2024-2025 denboraldiko aurrekontua (dagokionaren arabera): kapitulua eta programaka zehaztuta, federazioaren gastu eta diru-sarrerara guztiak barne. Oreatua egongo da gastuetan eta diru-sarreretan, eta ezingo da defizitarioa izan aurretik Arabako Foru Aldundiaren baimena lortu ez bada.

3. San Prudentzio txapelketarako dirulaguntza justifikatutakoan ordainduko da. Egiaztagiri horiek aurkezteko epea 2025eko ekainaren 27an amaituko da (egun hori barne). Justifikatzeko honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Txapelketaren izena, erakunde antolatzailea, kirol diziplina eta txapelketaren eguna eta ordua.

b) Txapelketaren argazkiak.

c) Parte hartzaileen zerrenda.

d) Txapelketako sailkapenak.

e) Txapelketaren publizitatea, egonez gero: kartelak, diptikoak, webgunerako esteka, eta abar.

4. Euskara sustatzearekin zerikusia duen dirulaguntza honako agiri hauek aurkeztu ondoren ordainduko da:

a) HABEren centro homologatuak emandako fakturak, egindako ikastaroetako matrikulen gastuari dagozkionak.

b) Matrikulak ordaindu direla egiaztatzen duten agiriak, horien zenbatekoa 500,00 eurotik gorakoa bada.

c) Ikastetxe horrek egindako ikastaroaren ebaluazio-ziurtagiria. Ziurtagiri horrek ikastaroa ez dela aprobetxatu adierazten badu, laguntza ukatuztat joko da.

Dokumentazioa aurkezteko epea 2025eko abenduaren 26an bukatuko da (egun hori barne).

5. Aurreko ataletan eskatutako egiaztagiriak aurkeztearekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat ere aurkeztu beharko da, adieraziz espendientera biltzen diren fitxategiak jatorrizkoen irudi fidelak direla, jatorrizkoak erakunde eskatzailearen esku daudela eta Arabako Foru Aldundiaren esku jarriko direla hala eskatzen zaionean.

6. Artikulu honetan adierazitako agiriak aurkezten ez badira, oker jasotako zenbatekoak itzultzeko prozedura hasiko da, edo, bestela, emandako zenbatekoak kobratzeko eskubidea galduko da.

7. Dokumentazioa telematikoki aurkeztu beharko da nahitaez, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren "Nire karpeta" atalaren bidez, "nire espendienteak" atalean, eta deialdiaren espediente espezifikorara sartuko da.

12. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, baldin eta beste edozein administrazioetatik edo erakunde publiko edo pribatutatik, Estatukoetatik, Europar Batasunekoetatik edo nazioarteko erakundeetatik edo Arabako Foru Aldunditik badatoz, betiere diruz lagundutako kontzeptuaren kostua gainditzen ez bada.

13. artikulua. Deialdiaren argibideak

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da. Halaber, Arabako Foru Aldundiaren web orrian jarriko da ikusgai: www.araba.eus.

14. artikulua. Araudi erregulatzailerak

Honako hauek arautuko dute deialdi hau:

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzkoa.
- 887/2006, Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.
- 11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzena.
- 3/2023 Foru Araua, urtarrilaren 25ekoa, Aurrekontuei buruzko Arau Orokorra.
- Aurrekontua Gauzatzeko Foru Araua, indarrean dagoena ekitaldi honetarako.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, eta aplikatzekoa zaion gainerako araudia.
- 57/2019, Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gobernu Kontseiluarena, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean Hizkuntza ofizialak erabiltzeko erizpideak onartzen dituena.
- 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen berdintasun Eragingarrirakoa.
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
- Aplikatzekoa den beste edozein.